

Pisukide bila

–Hepa! Malen naiz, hogeit urte ditut eta Aguraingoa naiz. Neska alaia eta berritsua naiz, eta kirolzalea naiz.

–Kaixo! Maitane naiz, hogeita bat urte ditut eta Abaltzisketakoa naiz. Lasaia eta langilea naiz, eta ez naiz oso berritsua. Oso musikazalea naiz.

–Hepa! Luis naiz! Hogeita bat urte ditut eta Araiakoa naiz. Oso dibertigarria eta jatorra naiz, eta oso-oso pizzazalea ere bai!

–Kaixo! Leire naiz. Hemeretzi urte ditut eta Sunbillakoa naiz. Neska isila naiz, baina ez naiz lotsatia, eta oso jatorra naiz. Argazkian alai nago, eta horrelakoa naiz, beti nago pozik. Bideojokozalea naiz.

–Kaixo! Belen naiz! Hogeit urte ditut eta Oñatikoa naiz. Lotsatia eta isila naiz, eta oso langilea. Mendizalea naiz.

–Egun on! Aitzol naiz. Hemezortzi urte ditut eta Baionakoa naiz. Langilea eta txukuna naiz. Liburuzalea naiz.